

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

7/2021 Foru Agindua, 2021ko urtarrilaren 26koa. Onartzea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2016rako Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagokion deialdian onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda, 2020ko abuztuaren 3ko 126. Foru Aginduaren bidez egina (2020ko abuztuaren 14ko ALHAO, 91. zk.)

Diputatuen Kontseiluaren 814/2016 Erabakia, azaroaren 29koa, zeinaren bidez onartu zen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzura dauden funtzionario plazen 2016rako enplegu publikoko eskaintza.

2017ko maiatzaren 17an ALHAOn argitaratu zen, maiatzaren 9ko 82/2017 Foru Agindua, zeinaren bidez aipatu den enplegu publikoaren eskaintza horren ondorioz Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzurako karrerako funtzionario lanpostuak betetzeko hautapen prozesuan bete behar diren oinarri orokorrak onartu ziren.

Bestalde, 2020ko abuztuaren 3ko 126/2020 Foru Agindua (2020ko abuztuaren 14ko ALHAOn argitaratua) onartzen ditu Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuaren deialdia eta berariazko oinarriak; Administrazio Bereziko Eskalako, azpieskala teknikoko, Teknikari Laguntzaileen Klaseko, Sukaldeko Laguntzaileen Klaseko, sarrera libreko sistemako eta adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kupokoa. 2020ko azaroaren 27an, BOEn argitaratu da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako zuzendaritzaren ebazpena, deialdi honetako eskabideak aurkezteko epea gaitzen duena, hogeit eguneko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Maiatzaren 9ko 82/2017 Foru Agindu horren 6.1 oinarrian xedatutakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Arabako Foru Aldundiko Gizarte politiketako foru diputatuak, gehienez ere hilabeteko epean, Foru Agindua emango du, eta, horren bidez, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartuko da, baztertzeko arrazoia adierazita, hala badagokio.

Halaber, 82/2017 Foru Aginduaren 6.1 oinarriak ezartzen du ALHAOn argitaratuko dela onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak onartzen dituen Foru Agindua.

Aurrekoari atxikiz, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa: Onartzea I. Eranskinean agertzen den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2016rako Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagokion deialdian onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda, 2020ko abuztuaren 3ko 126. Foru Aginduaren bidez egina (2020ko abuztuaren 14ko ALHAO, 91. zk.).

Bigarrena: Agintzea, onartu eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda ALHAOn argitaratzea eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu publikoaren atarian ere bai: www.araba.eus/ifbs/PortalEmpleo.

Hirugarrena: Baztertutakoek edo argitaratutako datuen multzoan akatsen bat nabaritzen dutenek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte eta, hala dagokionean, egindako akatsak konpontzeko eskatu, onartutakoen zerrenda ALHAOn argitaratu eta hurrengo hamar egun baliodunen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 26a

Gizarte Politiken foru diputatua eta GOFeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria
EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ

I. ERANSKINA

NAN	ONARTU/ BAZTERTU	BAZTERTUA IZATEKO ARRAZOIA
13304827 V	2	1, 2.
72406689 K	2	1, 2.
72732076 G	2	1, 2.
72744271 D	2	1, 2.
72832459 S	2	1, 2.
14260545 Q	2	1, 2, 3.
76419583 J	2	2, 3.

Onartuak edo baztertuak:

- 1- Onartua.
- 2- Baztertua.

Baztertua izateko arrazoia:

1. Adimen-desgaitasuna ez egotea egiaztatua.
2. 82/2017 Foru Aginduaren 5.4 oinarrian aurreikusitako tasa ordaindu ez izana.
3. Eskatzen den titulazioa ez edukitzea, edo hura jasotzeko eskubideak ordainduta ez edukitzea.